

# Kultur Agenda

Urtarrila  
Otsaila  
Agoitz  
2024

📞 948 336 690 - 600 445 238

✉ cultura@aoiz.es

f Instagramen eta  
facebooken zaudu



Inauguración  
Viernes 12 de enero 19:00 h  
Del 12 al 25 de enero  
Casa de Cultura de Aoiz  
Sala grande

Inaugurazioa  
Urtarrilaren 12, osteguna 19:00ean  
Urtarrilaren 12tik, 25ra  
Agoizko Kultur Etxea  
Areto Nagusia

www.aoiz.es

Colaboran  
Ligaturzen du



  
Agoizko Kultur Etxea  
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako  
Gobernua

 NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

## urtarrila

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

## otsaila

		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

## urtarrila

**5** **Kabalgata**

**7** **Antzerkia.** *Mari Pompas.* José Luis Lago Producciones

**12-25** **Erakusketak.** *Argazkilariak Munduan*

**14** **Musika.** *Vuelo de Notas.* Kuarist saxofoi laukotea

**19** **Solasaldia.** *Arimaren existentzia.* Juan Leache Aristu

**20** **Musika.** Makusai

**24** **Era eta Gazte Txokoak.** Errutinak euskaraz. Dindaia

**27** **Era eta Gazte Txokoak.** Aurpegi margoketa. Ainara Blasco

**28** **Mintzakide.** Mendi irteera, Adi mendira

**25-3** (otsaila) **Sentsibilizazio-Proiektua. Gatazka armatuak.**  
Erakusketa. *Eta zure eragina?*

**27-28** **Erakusketak.** *P52 Papiroa edo San Joan Zatia*

## otsaila

**2** **Sentsibilizazio-Proiektua. Gatazka armatuak.**  
Zine-Dokumentala. *Mama*

**3** **Tailer hitzaldia.** *INNOVA-T.* Álvaro de Guirior

**4** **Santa Agata.**

**6** **Mintzakide.** Bisitaldi gidatua. *El Irati* erakusketa

**18** **Antzerkia.** *Mua.* Kukumix Teatro

**21** **Era eta Gazte Txokoak.** Sukaldaritza tailerra

**24** **Era eta Gazte Txokoak.** Sormen tailerra. Patxi Huarte

**24-25** **Erakusketak.** *El Codex Calixtinus edo Liber Sancti Jacobi*

**25** **Zine-Dokumentala.** *Nafar-Haziak*



# Musika



## VUELO DE NOTAS KUARIST SAXOFOI LAUKOTEA

**14** urtarrila, igandea. **18:30**  
**Kultur Etxea. 5€**

Kuarist musikari gazteen laukotea da. Saxofoiaren musika-aukerak garatu nahi dituzte eta musika klasikoan eta garaikidean espezializatuta daude.

Bidaia bat munduko hainbat lekutan zehar, milaka sentsazio eta sorpresa adierazten dizkiguten soinu pintzelkada txikiak. Sarajevo, Adís Abbeba eta beste hainbat lekutatik, Frantzia, Gipuzkoa, etab. Laukote honek musika estilo ezberdinez betetako kontzertu bat aurkezten du. Zerbait desberdina, hunkigarria eta, batez ere, abegikorra.

Antzezleak: Leire Unzué, Carmen Ferrando, Josu Marauri eta Sergio Eslava.



## MAKUSAI

**20** urtarrila, larunbata. **19:00**  
**Kultur Etxea. 3€**

MAKUSAI taldea Iñigo Arburuak (bateria), Remi Etxeberriak (gitarra apala), Blanca Izkuek (teklatura eta ahotsak), Felix Mendiak (kitarra eta ahotsak) eta Kris Oset-ek (perkusoioak eta ahotsak) osatzen dugu.

Ez gara gazte koadrila bat, baina kasu honetan, hori dugu gure alde. Izan ere, musika munduan hainbat proiektuetan jardun dugu bostok, eta horiei esker eskarmentua lortu dugu. Esaterako, Felix, Kris eta Remi, Hamaika Aldiz taldeko partaideak izan ziren. Honetaz gain, Kris Semilla Somática taldean aritu zen, eta Remi Cebollators-en. Blanca, Balerdi Balerdi taldean ibili zen, eta Iñigo Too Matxak-en.

Estilo aldetik ez dugu gauza handirik asmatu: rocka eta poparen inguruan murgiltzen gara. Hori bai: oso gustoko ditugun bizpahiru kantuen bertsoiak kenduta, geureak dira doinu zein hitzak.

Arakil ibaiak, gure entseguen zaindari, zenbaitetan bere orroak helarazten dizkigu; bestetan, doinu suabe eta iradokitzaileak. Euskaraz, beti ere. Hortxe dugu inspirazio iturri.

## Line - Dokumentala



## NAFAR-HAZIAK

**25** otsaila, igandea. **19:00**  
**Kultur Etxea. 2€**

Gaztelera

Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak Argentinara bidaiatu du, Nafarroako kultura zabaltzeko. Buenos Aires, Rosario, Bolivar eta Mendozan dauden lau zentroetara egindako bisitan dantza, musika eta gastronomia tailerrak ematen dituzte, baita hitzaldiak eta dantza emanaldiak ere.

Bidaia honek argentinarren eta nafarren arteko loturak sendotu ditu, esperientziak partekatuz, gauza berriak ikasiz eta batez ere dantzatuz. Argentinaren eta Nafarroaren arteko atxikimendu emozionala bistakoa da, elkarren artean urrun badaude ere. Izan ere, posible al da urruneko kultura bat besarkatzea eta zureganatzea?

Zuzendaritza eta gidioa: Izaskun Barber De Carlos, Rut Etxarte Buezo



## MARI POMPAS JOSÉ LUIS LAGO PRODUCCIONES

**7** urtarrila, igandea. **18:30**  
**Kultur Etxea. 6€**

Ikuskizun familiarra  
4 urtetik aurrera. 55'

Mari Pompas, superpompilistikoki inperfektua!! Horrela definitzen da pertsonaia maitagarri hau. Mari Mary Poppins mitikoaren birbiloba da, nerabe despistatu eta zentzugabea, bere akatsez barre egiten duena eta bere talentuez harrotzen dena. Batez ere, publikoa gozarazten duen batena: xaboi-burbuilak sortzeko dohaina. Burbuilekin eta haien harrabotsarekin fantasiaz eta ilusioz beteriko abentura bat bizitzera gonbidatzen gaitu.



## MUA KUKUMIX TEATRO

**18** otsaila, igandea. **19:00**  
**Kultur Etxea. 3€**

Publiko gaztea-heldua  
60'

“Inoiz eman ez dizkigun musuak, emango ditugunak, emango dizkigutenak. Abestiak, barreak, dantzak eta talentua banatzen dituzten komedianteak. Eszena bakoitza fikziotik haratagoko istorio bihurtuko duten pertsonaiak. Banatu beharreko musuak.”

# Jarduerak euskaraz

## ERA eta GAZTE TXOKOAK

### ERRUTINAK EUSKARAZ

Urtarrilak 24, asteazkena | 17:00-18:30 | Euskararen Etxea  
DINDAIA

0-3 urtekoen gurasoentzako (haurtzaintza zerbitzua dago)

### AUEPEGI MARGOKETA

Urtarrilak 27, larunbata | Euskararen Etxea | Ainara Blasco  
16:30-18:00 (4-6 urte) / 18:00-19:30 (7-10 urte)

### SUKALDARITZA TAILERRA

Otsailak 21, asteazkena | Euskararen Etxea  
16:30-18:00 (4-6 urte) / 18:00-19:30 (7-10 urte)

### SORMEN TAILERRA

Otsailak 24, larunbata | Euskararen Etxea | Patxi Huarte  
16:30-18:00 (4-6 urte) / 18:00-19:30 (7-10 urte)

## MINTZAKIDE

### MENDI IRTEERA, ADI MENDIRA

Urtarrilak 28, igandea | Irteera: 09:30ean, gasolindegitik

### BISITALDI GIDATUA. EL IRATI ERAKUSKETA

Otsailak 6, asteazkena | 18:30-19:30 | Udaletxea

## ARGAZKILARIAK MUNDUAN AGOIZKO ARGAZKILARIAK



**12-25** urtarrila  
Areto Nagusia

Agoizko Foterxs taldeak erakusketa honen bidez zuen irudimena hegan egiten uztera animatu nahi zaituztegu planetako 11 puntutan zehar bidaiaria bat egitera eramateko.

Zer gordetzen dugu kameretan bidaiatzen dugunean? Zer dakarte gogora irudietan? Aurkitu al dugu gure helmugetan bilatzen duguna? Bidaiaren argazkigintzatik haratago hausnartu nahi dugu, eta argazkigintzan pentsatu, gure kezken isla gisa.

### Inaugurazioa:

Urtarrilak 12 | ostirala | 19:00

## Sentsibilizazio - Proiektua

### GATAZKA ARMATUAK: GARAPEN ANKERRA ETA JASANEZINA

Sentsibilizazio Proiektua, Coopera ONGdren eskutik. Bertan, Nafarroako herritarrak sentsibilizatu nahi dira gerrek eta munduko gatazka armatuek giza garapenean eta garapen iraunkorrean tokiko eragin globalari buruz.



### ERAKUSKETA

Urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra | Kultur Etxea



#### ETA ZURE ERAGINA?

6 Roll up-ek eta 12 irudik osatzen dute. Gehienak GGKEko kooperanteek hartu dituzte gatazka-eremuetan: Ukrainan, Sirian, Kongon, Tunisian, Salvadorren eta Kolonbian, bai eta beste GGKE batzuetako boluntarioek eta tokiko biktimek ere.

Erakusketaren inaugurazioarekin batera, GJHen eta 2030 Agendaren aurrerabidean dituzten zeharkako ondorioei buruzko testuinguru-esparrua ematen duen hitzaldi bat emanen da.

Inaugurazioa: urtarrilak 26, 19:00

### ZINE-DOKUMENTALA

Otsailak 2 | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea



#### MAMA (Zuzendaritza: Pablo de la Chica)

Kahuzi-Biega Parke Nazionalean, munduko leku gatazkatsu eta bortitzenetako batean, Lwiroko Primateen Birgaitze Santutegia dago. Han, Mama Zawadi eta bere txinpantze haurtxoak aurkitzen dute munduko leku bakarra non baldintzarik gabeko maitasunak gerrako zauriak sendatu eta desagertzetik salba ditzakeen.

Ondoren, hitzaldi bat izanen da: **“Ez da bakerik gabeko iraunkortasuna”**.

# Beste Jarduerak

## SOLASALDIA

### ARIMAREN EXISTENTZIA

Hizlaria: Juan Leache Aristu

Urtarrilak 19 | ostirala | 19:00 | Universo Sonámbulo

Zer da arima? Kontzeptu filosofikoa eta espirituala. Nor da gizakia? Gorputza eta/edo arima. Espiritua eta/edo materia.

Leku mugatua: gonbidapena jaso Bilaketan.



## ERAKUSKETA

### P52 PAPIROA edo SAN JOAN ZATIA

Urtarrilak 27 eta 28 | 12:00-14:00 | Universo Sonámbulo

P52 papiroa, San Joanen zatia ere deitua, papiroan idatzitako eskuizkribu zati zaharrena da, orain arte Itun Berrian ezagutzen zena.

125. urte inguruan idatzitako Joanen Ebanjelioaren testu bat dauka. Jonen Ebanjelioaren 18: 31-33 eta 18: 37-38 bertsetak ditu, grezieraz.



## TAILER HITZALDIA

### INNOVA-T

Hizlaria: Álvaro de Guirior

Otsailak 3 | sábado | 18:30 | Aurelio León Aretoa, Udaletxea

- Proposatzen dizut BERRITZAILEA izatea

- Denok egoera konplexuei aurre egin beharko diegu.

- Aldaketa ekonomiko sozialak: Adituek iragarri dute 10 urte barru enpresen % 25 desagertu egingen direla eta adimen artifizialak lanpostu asko ordezkatuko dituela.

- Klima-aldaketa eta kutsadura: CO2 emisioak murrizteko ekintzak azkartu behar ditugu, eta gaur egungo erritmoan berandu iritsiko gara.

Berritzeko ideiak behar ditugu, "baina berritzaileek ez dituzte ideiak bilatzen, berritzaileek galderak egiten dituzte".

Inoiz galdetu diozu zeure buruari, non daude ideiak zure buruan agertu arte?

INNOVA-T hitzaldi tailerra da, galderez, erantzunez, intuizioaz, berrikuntzaz, pentsamenduez... hitz egingen dugu, eta zure gaitasunez jabetuko zara.

Pertsona guztiei zuzendua: ikasleak, langabeak, besteren konturako langileak, autonomoak, zuzendariak, enpresaburuak eta bizitza BERRITU nahi duten guztiak.

Bizitzak etengabe planteatzen dizkigu erantzunak eskatzen dituzten hautabideak, baina erantzunak izateko galderak egin behar dituzu.

"Gauzak ikusteko modua aldatzen duzunean, gauzak formaz aldatzen dira".



## SANTA AGATA

otsailak 4 | igandea | 18:00

Ibilbidea herrian barna.

## ERAKUSKETA

### EL CODIX CALIXTINUS edo LIBER SANCTI JACOBI

otsailak 24 eta 25 | 12:00-14:00 | Universo Sonámbulo

Codex Calixtinus edo Liber Sancti Jacobi, bibliografiako Erdi Aroko harribitxia, Erdi Aroko iturri aberatsenetakoa da historialari, geografo, musikologo, soziologo, etnologo, artearen historialari eta hizkuntzalarientzat. Hainbat eta hainbat diziplinan duen balio kalkulaezina dela eta, Codex Calixtinus Erdi Aroko estudioko obrarik monumentalenetakotzat jotzen da.

